DIRULAGUNTZAK EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARAZ TREBATZEKO 2025-2026

Zer laguntzen da deialdi honen bidez?

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak (HABEk homologatutako zentroetan egindakoak); ikastaroaren matrikula eta asistentzia.
- Gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egitea.
- Unibertsitatean uda eta opor sasoian egindako euskarazko ikastaroak.

Zein baldintza bete behar ditut?

- 16 urte edo gehiago izatea ikastaroaren hasieran (ziklomotorretarako gidabaimenaren kasuan 14 urte beteta izatea).
- Gernika-Lumon erroldatua egotea edo *Hitzargune* programako kide den erakunde bateko langilea edo bazkidea izatea.
- Izena emandako euskaltegian amaitzea ikastaroa.
- Dirulaguntza eskatzen den urratserako edo ikastarorako aurretik beste dirulaguntzarik jaso ez izatea.
- Asistentziagatik dirulaguntza jasotzeko, %70eko asistentzia betetzea.

Noiz arteko epea daukat eskabidea aurkezteko?
Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30era arte egongo da zabalik.

Zein dokumentu aurkeztu behar dut?
Dokumentazioa eskatutako laguntza-motaren araberakoa izango da:

- **Eskabide-orria** beteta.
- **Ikaslearen fitxa**, euskaltegiak edo unibertsitateak emana, matrikulazio-laguntzetarako.
- Aprobetxamenduagatik emango diren laguntzetarako dagokion erakundeak emandako **bertaratze-ziurtagiria**.
- **Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria**.
- Langabeen kasuan, **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitza**, diruz lagundutako jarduera egin zen aldian lan-egoera egiaztatu ahal izateko.
- **PFEZaren aitorpena**, oinarrietan aurreikusitako kasuetan.
- **Errolda-ziurtagiria** edo, hala badagokio, HITZARGUNE kanpainan parte hartzen duen erakunde edo enpresa bateko kide izatearen egiaztagiria.
- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren** onuradun dela egiaztatzen duen ziurtagiria, hala badagokio.
- Gidabaimena lortzeko azterketak euskaraz egiteko laguntzen kasuan: azterketa euskaraz egin dela egiaztatzen duen Trafiko Zuzendaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen beste edozein agiri, beharrezkoa denean.

Non aurkeztu behar ditut dokumentuak?

- Aurrez aurre: herritarrentzako arreta zerbitzuan (HAZ).
- Modu telematikoan: Udalaren web orrian, tramiteak atalean.

Oharra: *Aita Villasante Udal Euskaltegiko ikasleek ez dute asistentziagatiko dirulaguntza jasotzeko eskubiderik, bertan eskaintzen delako beka sistema.*